




ILEROKO ALDIZKARI EDERGAÏDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—:	VIII Urtea	1926'ko Garagañia	90 Zenbakia	:—:
-----	------------	-------------------	-------------	-----

Elizaren Bizitza

1) Aita Santuaren arazo biziak.



RTE santua azkendu ezkeru, Aita Santua lasaiago ta atsedentsuago bizi dala itxuraz esango dezute; jun dan Urte Santuan egunero andik ta emendik zetozten kristau adixkideak ta etsaiak artzen zituan, guztiai ta bakoitzari itz maite bat esaten zien arpegi ifitsuakin; goizetik gaueraño atsedetik gabe lanean ta nekatur, gauean beriz Jaunarekin elkar mintzo ta laztan maiteak.. Orain agiria edo azala ikusten dutenentzat

Aita Santua lanik gabe dago patxara ederean; ¡zein oker ikusten duten oyek! An Vaticano'ko etxe aundi ta itxurez zar ayetan ixiltasun izugaria da... ta ixil ortan adimen ta biotz aundi batzuk lan gogorean ta beroenean ari dira; ¡Aita Santuaren adimena ta biotza be-

ti bezin erne ta sutsu ta are geyago daude. Ondo begiratzten dakienak ikusi lezake.

Ara: jun dan otsailaren 16'an aurkeztu zitzaizkion Garizumagaraian Jainkoaren itza adierazi bear zuten iztun agurgafiak edo predikalariak; ayen aurrean Aita Santuaren biotza zabaldu zan ta bere arazo ta gogamen biziak agertu zizkien: 1) lenbizi ta biziena Asis'ko Prantzisko Santuaren ta Gonzaga Luis Santuaren eun urteak; ta Santu oyen ta batez ere Prantzisko Deunaren bizitza ta gogoa oraingo gizadian beriaraztea ta Eun-Urte oyek ondo jaitzeko bear bezala gertutzea.

2) Sinismengabe daudenen ta katoliko ez diran tartean misioak ugaritu, bizkortu, obetu ta laguntzea Kristau guziak zerbait ortarako jariaz.

3) Katolikoen tartean Erlijio egiazkoaren irakaskintza ta jakitea era guzitan guztiai, aundiai ta txikiak, gizonai ta emakumeai gero ta geiago zabaldu ta agertzea.

4) Emakumeen janzkera lotsagafiak; gizonak ere ortan beren erü aundia badaukate; ta ortik ta beste aldetatik aunditu ta zabaldu dan loikeri ta aragikeri itxusgaria; ori guztia baztereratzea.

5) Protestanteak leku guzitan ta batez ere Indian ta Txinan beren erlijio gezuñezkoa zabaltzeko darabilkiten leia, guk Katolikok gure erlijio bakañik egiazkoa bafeiatzeko gure leia ta su aundiagoakin irabaztea.

Oñela bere biotz aundia iriki zuan itz bizi ta sutsuakin ta atse dentsuago gelditu zan ta gero gauean ixilaren magalean otoitzaren eztitasunak gozatu zuan bere arima.

2) Protestanteen arteak, beren aldekoak Aita Santuaganatu ez ditezen.

Aurêkoan esan nizuen Urte Santuan protestante asko etorri ziralara Erómara ta askok Aita Santua ikusi zutela ta Jainkoak aitzaki ortan bere azi ona ixuri zuala aien animetan, ordu ezkeron protestante oyek begitarte ona egiten diote gure erlijioari, baita liburu ta egitetan ere. ¡Arisku aundi ori ikusi ta protestanteen sasi-apaizak nolana galerazi egin nai dute protestanteetatik iñor Erómaratzea. Ta urte ontan Frantzisko Santuaren Eun urtea zala ta txingo edo peregrinazio asko gertutzen ari bai ziran Asis ta Erómarako, ta urte aubigaren Urte Santua izango bai-da ondorekotan, Aita Santuak nai duan bezela, igaz erein zan azi on ura eldu ez dedin, protestanteak ara zer asmatu ta egin duten.

Oroitzen al zerate jun dan guda zakañ orien ondorean, len Alemaniko ta Austriako zan Tirol eria zafitu zutela ta zati bat, Beko Adige deritzayon zatia Italia'ri ta beste zati bat, txikiena, Austriari eman ziotela garaileak bidegabeko egiune ospetsu ayen bidez. Tirol

ortan ya alde guzitan Aleman-izkera itzegiten da; izkera artan eskolak, izkera ortan Erlijioaren (geyenak dira katolikoak) irakaspenak ta abar. Orain Italiak beretzakoratu duan zatian guztia italiarazi nai du ta batez ere izkera ita ortarako Italiako Agintaritzak bide gogorak artu ditu. Eskoletan jakina! bere soroa du, ta or guztia italiarazi



Jesus'en Biotza ta Margarita M.^a Alakoke Santa.

du ¡Elizako gauzetan ere Italiako izkera nai ta nai ez sartzera bear-tuarazi izan nai du, inork ez aditu, ulertu, aŕen.

Italia guztia italiarazten ari zan, aleman-izkera leku guztitafik bazteŕaturik. Protestanteak aldi ona ikusi dute ta Alemandaren go-goak berotzen asi dira, berotu dira ta Bavierako Agintaritzaren Buru dan Held Katoliko bizkoŕak izugarizko itzaldia egin zuan bere Eŕi-

Batzañan aleman-izkeraren alde Tirol'en, gertatzen zanaz Eri guzien aurrean erenkuratu ta ostetuaz. Au jakin-da Italiako Agintaritzaren Buru dan Mussolinik berealaxe gogorregi erantzun zion, axukatu ta aupakatuz bezela; ortik artu-erantzun gero ta gogoragoak; guda beñiaren ertzean 'geundela zirudín ta salgaien guda agindú zan.


Buruka onen ondorengoak auk izan dira: protestanteak mugitu zuten au guzia, Munich'eko Gotzai Jaunak argi esan duan bezala, ta orain zabaldu dute inork ez dula Italiara etorri bear, bestela ez dala Alemandar ona; Aita Santua Erroman ta Italian dagola ta Italiaren alde dala; ta oréla urte ontarako gertuta zeuden txango asko, geienak, berogei baño geiago bai, uratu dira.

Beste aldetik Tirol gaixoko katolikoak, berak erlijioa ikasten zuten izkera bakañean egiten zieten Apaiz ez gutxi espetxean ertsiak ikusirik, Aita Santuarengana bialdu dute beren arimen ots xamuña, bere sinismena ariskuan dagola-ta berak ulertzen duten izkeran egiten dien artzairik gabe. ¡Aita Santu gaixoa! egunero etsaiaren ola-ko erasoaldi gogoren bat... Jaunarekin otoitzean mintzatu da. Tirol'ko Gotzaia deitua du... Ta otoitzean sendotuta bere eskubideak begiratuko ditu Jainkoak bezela Aita Santuak, aren ordekoa bai da; Eri aundiko katolikoek bea ari aña Eri txikiko katolikoek onari begiratzén dio ¡guztiak dira bere ardiak, guztiak ditu bere maiteak! ta ori bera agintzen die alderdi guztian berak jaritako artzai ordeko guztiai ¡ta amaika aldiz era orétan lan egiten ez duten artzaiak kendu, besteak jartzeko!

Euskaldun maiteak, orain ez dala asko, juan dan Neguilean, euskaldun maisu bati Aita Santuak esaten zion: «badakit zuen euskera ori zuen sinismen aundi orén euspéna ta zaitzalea dala; nik maite zaituztet.» Euskaldunak maite gaitun ezkeror Aita Santu maitegarri onek, kristau onak bezela guk ere biotz guztiz maite dezagun ta gure sinismen aundiakin ta egite obegoakin ezti alaigarri pixka bat ixuri dezagun ainbeste aldetatik samintzen ta negar eragiten dioten biotz maitale artara.

Amaialde

Erroman, 1926



4'n. Agindua. Seme-alaben bizibideaz

Alaba emazu, eta egintza aundia egingo dezu,
gizon zentzatsuari emalozu. (Eccli. VII-27.)

Azkenekoan ikusten gendun zein erne ta kontuzkoak izan bear duten gurasoak beren seme-alabakin.

Baño ezin utzi dut aipatu gabe gurasoak daukaten beste eginkizun bat. Seme-alabai beren garaiean bear dan bizibidea egokitzeke daukaten eginkizuna.

Guraso gutxi ezagutzen dute bear bezala eginkizun au. Argi ta garbi adirazi nai diet, ba, gaur.

Bizibidearen aukeratzea, bizitzaren ardatza da, esan du santu batek. Kristauak aztatzen ba-du norberarentzat Jaungoikoak nai duan bizibidea, etzaio zail egingo bizibide ori; or arkitzen bai dira berari dagozkion ona izateko laguntza guziak eta bere betiko zorionaren itur-begiak. Baño gurasoaren laguntza, eretasuna, ta esan-ona beafezkoak egiten zaizkio geienean gazteari, bide ortan ondo sartzeko.

Gurasoak ajolakabe, axolakabe?

Guraso ona ezin ditek axolakabe izan bere seme-alaben etorkizunaz. Auen etorkizun on edo txafa, berauek artu bear luketen bizibideakin aztatzean edo ez aztatzean dago ordea. Bizibide ori artuko dute befiz, gurasoak bear den garaiean, on zaien eran, bear duten bidez jotzera eragiten badiote. Gurasoen esku on edo txafak asko egin dezake, ba.

Gaztea ezin beartu nai ez duan bizibidera.

Eztago gurasoaren eskuan, berak nai duan bizibidea seme edo alabai afaztea.

Gurasoak ezin du semea Apaiz egiñazi, edo alaba monja saferazi, oiek nai ez dutela. Jaungoikoagandik ba-datorkie ortarako gogoa, orduan ez galaztea, baizik artarako eskua ematea, ori da gurasoen eskuan dagona. Berealaxe, komenturako gogoa dakafen gaztea, ezin du gurasoak asmotik aterazi, gogo ori galduazteko lagun, toki edo jostabidetara ezin du eramanezi pekaturik gabe. Ta naiz ezkontzera ta naiz komentuan sartzera, bildufaz, gaitzez edo nolana bat beartzea ezta zilegi, pekatu lafia litzeke ori.

Gurasoak beren seme edo alaba gabe bizi ezin ditezkenean, orduntxe zilegi izan liteke gaztea joatea luzaraztea edo ta galaztea.

Gurasoen laguntza beafean.

Gurasoen laguntza gabez gazte asko gelditzen dira, artu bear luketen bizibidea artu gabe.

Batzuek, gurasoi gaztegiak irudi zaizkielako bizibide ori artzeko; au gertatzen da komenturako gogoa duten gazte askorekin. Eta askotan galtzen dute arako gogoa gurasoen obenaz edo kulpaz. Beste batzuetan gurasoen zikoizkeri edo berekoikeriz; au gertatzen da ez gutxitan, ezkondu bear luken seme edo alabak irabazi aundia dakafelako etxera, edo gurasoak beren etxeko nagusitasuna beren eskutik nai dutelako; seme edo alaba urte ta urtetan ezkondu egon bear luketenak, ezkondu gabe dauzkatenean.

Beste batzuetan au gertatzen da, gazteak ezkontzeko garaia ta gogoa izan afen, kontu oietan asteak lotsa ematen dielako gazteai. Ba-dira oraindik gure gaztetan, eta ez txafanak ziñez! lotsa ofek beren ezpañak ixten dizkienak eta gurasoen esanaren begira zartzen direnak, gurasoak bear litzekeen garaiean aufferapenik eskeintzen ez dielako. Ofelakoen gurasoak bear diote beren gogoaren befiarz galdetu ta bein ori ikasiz geroz bear duten bizikidea bilatu. Onela egin

zuan Abraam'ek bere seme Isaac'entzat andregaiia biltatzean. Rafael goiaingeru berak bilatu zion Tobias lotsati ta biotz garbiari. Eta onelako ezkontza auek ez dira egiaz, besteak baño txafagoak izan.

Ezkontzaufe luzegia.

Gaurko gaitz aundi bat da au. Gaitza deitzen dut, gaztegi ta ezkontzeko asmo egiazkorik gabe, asten diralako ezkontzeko kontuetan. Bi gaztetxok adiskide antza egin dute elkafekin; eta ezkongai diralako izena arturik, beti alkafekin dira. Au ezta zilegi, ta ezin diote gurasoak beren gazteai ofelako ibilerarik ontzat eman.

Ezkontzaufe luzegia beti kaltegarri da ezkongaiarentzat. Bi gaztek alkafekin ezkontzeko asmoa dutenean urte baten buruko ezkontza egiteko bideak jafi bear dizkiote gurasoak. Urte bat baño geiago dirauten ezkongaien arteko ibilketak ez ditezke zilegiztat iduki geienean (Noldin). Bitarte ortan kontu aundia bear dute gurasoak ez uzteko biak bakafik egoten eta ezta ere egonaldi luzegiak. Argatik kontu ikaragarria eman bearko dute, seme ta alabak bakoitza bere gogoko lagun bakafekin jai afatsaldero nai duten tokira joaten uzten duten gurasoak.

Gurasoen baimena.

Ogeitairu urtetaraño ezditeke, ez seme ta ez alabarik, gurasoen baimenik gabe, ezkontzeko ere, oien elxetik atera; Napafoan ogeitabostaraño. Baño gurasoak baimen orif bidezkoa denean ez diote ukatu bear, naiz ezkontzeko ta naiz komentura joateko. Bein baño geiagotan afixku aundietan jafi lezazkele gañerakoan. Adin artatik gora naikoa dute gazteak, gurasoi beren asmoa adiraztea, ta gurasoak ezpalu nai ere, iru ilabeteren buruan baimena ez ematezkerok beren bizibidea artu dezakete.

Gurasoak, garaiez adirazi bear diozute gazteai on den bidea; baita ere sumatu orduko, galarazi edo eragotzi on ez dena; baño seme edo alaba, apafetsiak, otxafaturik edo itsuturik baldin badaude bizibide edo bizikide batekin, obereña da, len baño len nai dutena egiten uztea, zilegi dena izan ezkerok.

Komenturako gogoa dutenentzat geienean ez dira erakusle onak beren gurasoak, baizik beren konfesoreak. Oien esanera jafi bear dute, ba, gurasoak.

Zenbat uts eta zeñen ondore txarekoak!

Gurasoak zenbat utsegiten duten beren gazteai bear den bizibidea afaztean, ezta efaz ezagutzea.

Utsegiten da gazteak jakin bear ez lukena erakutsiz, edo ikasteko bidean jafiz; lagunarte nolanaikotan ibiltzen gazteai uzten zaielako; on ez diren jolasak edo irudikai (novelak) eskutan uzten zaizkielako.

Utsegiten da komentura sartzea galazten zaienean, gazteak beti beren ondoran izateagatik; gazteak nai ezluten ezkontza afazten zaienean diru geiagokin ikusteagatik; nolanaiko lagunekin, nai duten ordu ta tokietan uzten zaienean, etxealde aundietan gero semeak ikusteagatik; bear zen garaiean adiskidetasun bat ez moztutzeagatik; edo baita ere bear zen garaiean on zen bidea eman etzi zaielako.

Jaungoikoak dio: *Aitareen esnarazle izkutukoa da alaba, ta onen kezka loia kentzen dio, bere gazte-aroa igaroko zaion biltuz.* (Eccli. XLII-9). Eta beste toki batean dio: *«Bai al dituzu alabak? zaindu dezazu beren gorputza. Alaba emazu, ta egintza aundia egingo dezu, eta gizon zentzatsuari emaiuzu.*

Kontu aundia bear dute, ba, gurasoak gazteakin, beren garaiean on zaien bizibidea afazteko ta artaraño bear den bezala zaintzeko.

Ofeikin jartzen dituzte erabat beren seme edo alabak zeruko bidean eta ortan utzi arte, kezka gabe ezin egon gurasoak.

Intza'r Damaso An.

JESUS'EN BIOTZARI

*Quis dabit mihi pennas
sicut columbae...*

Egan dijoaz usotegira
egan dijoaz usoak:
ta Zure Biotz-bafua doaz
maite zaituzten gogoak.
Beti irikita zabal-zabalik
usotegiko leioak...
ta Zure usotxo ega motz onek
ezin aruntz jo gaxoak...
Ai! Onek ere, Jauna, ba litu
aiek dituzten egoak...!

Orduan, ziñez, lagako luke
efekaldeko zelaia,
ta azlu ere bai, ain maite duan
bere usotegi alaia.

Utziko luke, ziñez, alako
mirua dagon basoa,
ta pagausoak bildu oi-diran
mendibeko itufitxoa.

Amaika bider Zure usoekin
abiatu da Zugana:
ai! lef-eginda bidean bela
gelditu bear, au lana!

Egan dijoaz usotegirontz
egan dijoaz usoak...
Ai! Onek ere, Jauna, ba'litu
aiek dituzten egoak...

JAUREGI'tar LUIS



ZER ZORION!

(JAUNARTZERAKO)



(Hiriart'ek bildua)

Lizaña'ko Iñari Ak. ereskidetua

Adagio

Musical score for the first system. It features a vocal line and a piano accompaniment. The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 6/8. The tempo is marked 'Adagio'. The vocal line begins with a piano (p) dynamic. The lyrics are: Zer zo - ri - on! oi au da on - gi -

Musical score for the second system. The vocal line continues with the lyrics: na - ia I - kus - ten dut Je - sus mai -. The piano accompaniment includes a mezzo-forte (mf) dynamic marking. The lyrics are: na - ia I - kus - ten dut Je - sus mai -

Musical score for the third system. The vocal line continues with the lyrics: te - a, zer zo - ri - on! O - fa ze -. The piano accompaniment includes a forte (f) dynamic marking. The lyrics are: te - a, zer zo - ri - on! O - fa ze -

ru - tik je - txi - a ne - re - ga - tik, zer

The first system of the musical score consists of a vocal line and a piano accompaniment. The vocal line is written on a single staff with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). It contains four measures of music with lyrics underneath. The piano accompaniment is written on two staves (treble and bass clefs) and also contains four measures. The music is in a simple, folk-like style.

rit

zo - ri - on!

rit.

The second system of the musical score continues the vocal and piano parts. It begins with a 'rit' (ritardando) marking above the vocal staff. The vocal line has two measures with the lyrics 'zo - ri - on!'. The piano accompaniment also has two measures. The system ends with a double bar line. The piano part includes some dynamic markings like '>' (accent) and 'rit.' (ritardando).

ZER ZORION

1 Siñesten det
Zeruetan bezala
Aldarean orain zerala,
Siñesten det bai sendotua,
Siñestez bizkortua,
Siñesten det.

2 Ene Jesus,
kabi bat aldarean
jañi diguzu bertan bertan...
Ene Jesus, Ama zu zera,
Zu txoritxoan ama,
Ene Jesus!

3 Txoria ni!
oñ natorkizu ni
gosez auldua, otzez lafi:
txoria ni! zure kabian
beti zure ondoan
txoria ni!

4 «Egafi naiz,»
Jesusek jainko-odola
eman dit goizik odol ura.
Ase naiz... Jainkoarena zan
gozoa, indartsua zan...
Sendotu naiz...

Euskaldun Gotzai (Obispo) Beria.

Manuel Irurita ta Almandoz, Lerida'ko Gotzai izendatua.

Napafa degu obispo beria au; Ultzama'ko eritxo batean, Lafaintza'eren jaio zan mila zortzireun irurogei ta amaseigafen (1876) urteko agoztuaren 19'an. Beraz befogei ta amar urte ditu orain.

Aurtzaroa bere sortefian egin ondorean, joan zan 1888'gafen urtean Santander'ko Montehano'ra, an Kaputxinoen artean Latin ta ikasteko. Apaiz-ikaskuntzetan ain beafezkoak diran griego ta hebreoari gogoz ekin zion orduetzkeru.

Bi urteren buruan, Lekaro'ko Aztetxea (colegio) egin ta iriki zanean, aratu zan Montehano'n asitako estudioak aufera jafaitzera; ta gero Filosofia ikasten asi zan.

Zenbait urte geroago maisutako estudioak egin zituen ta bi urtez (1898-1899) maisu egon zan Ostiz'en eta Zugafamurdi'n.

1899'ko Ilbeltzean Iruña'ko Eliza-Nagusian utsik zegoen kantonre-kargurako oposizioak egin ta irabazi zuan eta bereala joan zan ara.

Ondoko Garagañilean Valencia'ko Eliza-Nagusirako egin zitu en beriz oposizioak; irabazi zuen an ere ta ondoko Ufian aratu zan.

Aspalditik apaiz-egiteko asmotan zebilen; gañera orain irabazi zuen kargu afez eskatzen zuen urte bafuan apaiztu bear zala kargu ori zuena ta ofegatik Latin ta Filosofiazko azterpenak egin zituen, ditezken notarik onenak irixten zituela. Gero Valencia'n ikasi zuen Teologia ta 1900'gafen urtean apaizturik bere sortefian eman zuen lenbiziko meza Agoztuaren 6'ean.

Ondoko urtetan bere estudioak aufera jafaiturik Filosofia ta Teologiazko Doktor egin zan, beti notarik gorenak irabazten zituela.

1906'gafen urtean-edo Valencia'ko Apaizgaitegian izendatu zuten griego-irakasle ta zenbait urte geroago Teologia-irakasle, bafia orain dirala bi urte kargu ori utzi egin zuen, Jainkoaren itza zabaltzeari gogozago ekiteko aspalditik nai zuen bezela.

Valencia'ko Elizbafutian kargu asko izan ditu bere gain. Jesus'en Biotzari etxeak eskeintzeko Batzordearen Buru ere izan da ta

*auxe da noski berarentzat kargu guzietan atsegiñena ta berak ar-
dura geienaz bete duen eginkizuna.*

*Valencia'ko alderdi aietan oso ezaguna da kantore ta predi-
kazale bezela, alde guzietan oroitzapen ezin obeak utzi ditu. Dira-
la zenbait urte asi da bere izenaren beñi zabaltzen Bilbo'n ta Biz-*



MANUEL IRURITA ta ALMANDOZ
guziz agurgaria Lerida'ko Gotzai (Obispo) izendatua.

*kai'ko beste uri batzuetan ere zenbait bederatziurten, iruren ta beste
itzaldi eman ditu or ta.*

Zeruko Argiak poz-pozik zorionak ematen dizkio Kaputxinoen
Ordena ain maite duen Euskaldun Apezpiku beñiari.

Ad multos annos.



Antonio Santuaren Jaia

ĪABETE onen amairugaŕen egunean (nork ez daki?) Antonio Santuaren jaia da. Egun ortan ez dira lo egongo Santu aundi ori maitatzen duten kristauak. Ez orixe.

Goizean-goiz jaiki ta burura etofiko zaien lenbiziko gogoeta, Santu ofek egin, dizkien mesede ta ontarteen gogoeta. Biotzean somatuko duten lenengo maitasunaldia, Santu mirarigile ofenganakoa izango omen da. Loretegietan sortutako lore mardul, usainsuenak Antonio Santuaren aldareak apaintzeko ta edertzeko. Ofela befiz ta geiago irabaziko dute beren maitasuneko Santuaren biotza, beronen bitartez mesede ta esker ugariago iristeko Jaungoikoarengandik.

«Zeruko Argiak» ere maite du Antonio Santua. Īlabetero ematen du meza bat bere aldarean irakurle ta ongile guzien alde. Īlabetero dakar zerbait irakurleen biotzetan Paduako Santuarenganako maitasuna piztutzeko. Gañera irakurleak biali ezkerro, agertzen du ere Santu ofen bitartez iritsitako edozein mesederen befia. Onegatik Antonio Santuaren maitaleak Īlabetero artu bear dute «Zeruko Argia» ta arduraz irakurri Santu ofetaz dakafena, ta gañera biali nai badigute ere Paduako Santuak egin dien mesedearen befia, emango diogu emen lekua.

“Aingeruen bat bialiko dizu...”

—Gauzaren bat galtzen danean Paduako Antonio Deunari otoitz egitea, *ere-zatzea*, omen da, befiz arkitzeko, biderik onena. Egia al da?

—Bai noski: Eta ala adierazten digute Antonio Deuna ezkeroko garai guztietako kristau asko eta askok. Antonio Deun zale gutxi izango dira noski, galdutako gauzaren bat *santu* ofen laguntzaz arkitu izan dutelako, berari esker ona erakutsi beaŕa izan ez dutenik.

—Baño askotan ez al dira alabeaŕez arkitzen galdutako gauzak?

—Ala diote sinismen gutxiko gizonak. Baño ez al da afitzekoa, bila ta bila ibili eta arkitu ez, eta Antonio Deunari *Aita gurea* esan eta berealaxe, askotan amaika aldiz gain da azpi ikusitako toki berean, arkitzea?...

«Gizalaba gazte bat joan-etofi luze baterako bultziratu (*treneratu*) zan, eta bultzia (*trena*) abiatu ta gero *bide-txartela* galdu zuala oartu zan. Estu ta lafi, bere sakela, bide-tresna ta inguruko baztar guztiak bein da befiz ikusi zituan; bere bide-lagunak ere laguntzen asi zitzaizkion; bañan alpefik; *bide-txartela* etzan iñon agiri. Orduan andre gaxoa ots aundian Antonio Deunari otoika asi zan. Ori entzunik, urbilean zijean Gotzai (Obispo) Jaunak esan zion: «Antonio Deunak, beaf bada aingeruen bat bialiko dizu *bide-txartela* itzultzera.» Andik bost *minutura*, sugurdi (*tren*) zaia etofi zan, norbaitek *bide-txartela* galdu ote zuan galdezka. Lagun batek bidean arkitu zuala gaztigatu omen zuten ufutidazkiñaz (*telegrafoz*). «Gozai (Obispo) Jauna igarlea da, Antonio Deuna ondo ezagutzen duana argi da»—zion orduan andereak pozaren pozez»


Otar A. O. M. Cap.

Antonio deunari eskerak ondo konpesatua

Gipuzkoatik artu degu Andre on baten eskutiz osorik eman ezin degu bat. Pekatu aundi batean erori zan eta lotsak arturik, etzuan urte sail batean aitor-tzen. Bafen guzia nasi zion sermoi bat entzun zuan eta «keskaren keskas ser egiten nuen esnakien—dio—, asi nitzan *Zeruko Argia* letzen eta aren ofi batian bilatu nuen andre bati S. Antoniok egin zion mesede aundi bat... ta erabaki nuen S. Antoniori eskatzia zeruko argia afen ifitxi zezala nere animako ilunpe artara... Biramonian Ama-Birjiña eguna zan eta jun nitzan Eleizara ta ikusi nuen bere aitorregian segola nere biotza ainbeste zatitu ta ikaratu zuen sermogile on ura... ta esan nion, bai jauna ni pekatari aundi bat nator. A! basidurien basekila nere animako befi; ain ongi lagundu ziran. Konfesio on bat egin nuen, bazirudin an seola S. Antonio bera argi egiten... len pekatu bat esin banuen aitor-tu, gero amalau efas aitor-tu nituen Aita S. Antoniorene laguntzas.»

A. V.

Ilabete onen amairugafenean, Antonio Santuaren jai-egunean bertan emango da meza bat ZERUKO ARGIA'ren irakurle, ongile ta zabaltzaleen alde.



AZIERA

“Ama zer da?”



MA... Beñere ikasi gabe esaten dakigun itza.

Ama... Alderdi guzietako jendeak, dakizkiten izkuntzetan esaten dakiten itz edefa.

Ama... Bein^oesan ezkerro egundafio aztutzen ezten itz leuna; eriotzeko orduan ere ezpañetara etortzen den itz xamufa.

Ama... eriotz-aufeko^o zartizaroan ere ezpañak marmafian darabilkiten itz eztiixua.

Ama... itz eztiixu-xamuf-leun-zoragafiena!

Zorigaritasunez^o bete-betia dagon itz edef ori gure biyotzak ezin bestez maite du. Beste izen asko gizonari burutik joaten zaizkiyo: Ama ez orixen!

Biyotz gogofenak xamurtzezkerotan itz ofetxek bakafik biguindu dezazke: Amaz aztutzen danik ba al da?

«¡Ai ama!» nere biyotzeko estu-aldietan eta ilun-aldietan ¿zenbat aldiz Ama gogora etofi ote zai? Ama gogora etofi ala askotan ilun-aldiak alde egin

du nere biyotzetik: ama nitaz oroitzen dela gogoratzia naikoa izan da nere estu-aldietan biyotza lasai-lasai gelditzeko. Ama! nere ama! nere amatxo!... neufigabe, aztu gabe eta beti maite nauzu ta. Amiak biyotzean dauzkan doaien eta batezere maitasunaren neufia Jaungoikuak bakafik daki.

Amaren maitetasunaren erakorik arkitzen eztu zenbaterafio gizona maite dun aditzera emateko.

Atozte nigana, diyo «ama batek bere seme bakafa laztandutzen duen bezela laztanduko zaituet. Nere besoetan eramango zaituet eta ama batek semetxoa bezela nere magalean eta belaunetan jafiko zaituet» (Isai. LXVI, 12,13) eta Ama xamuf onenak bañon geyago maite gaitula diyo bein ta beñero: «Jaungoikuaren esanak egingo dituzun semea izango zera zu eta amak bañon efuki geyago zutaz izango du.» (Eccli. IV, 11)

«Zure ama zutaz aztuko balitz ere, ziur egon zinteko zutaz aztuko eznaizela.» (Isai. XLIX, 15).

Jaungoikuak bakafik garaitzen du, amak bañon geyago maite gaitulako, amaren maitetasunaren neufia.

Ama... Gudari buru zintzo-leyalen auffman, jendeak afiturikan txaloka goratzen dituzte. Egalarriak mendi-bizkar goyenak baño gorago egaka ufuironz abiatzen dirala ikustian eta itxaso aundia bařena, ekaiřz bolada beltzak egaka daramazkin tresna pufakatu nayian ibili ařen, Ameriketarařo etofi dirala jakitian, goratuak izaten dira gizon jakintsu kementsu oiek, jakinduria eta kemenen erakustiaz beren sorteria ospetsu aundia munduaren auffman egiten dutelako...

Oyartzuna O. M. Cap.

OSASUNA

"Osasungarizko zerbeit"

Askotan gure gaitzak sabeleko miřez jotzen digute. Bere asiera sabeleko miřa dutenez geroř, gai ontaz nai nuke zerbeit adierazi: ene irakurle maite ofek onesten duela.

Sabeleko miřa ořaze andi denean eta betbetan eldu denean, kontu.

Geienetan, alako asiera guti aldera ematen duguřa, ustez ta zerbeitek kalte egin diola, zerbait ura trabaturik gelditu zaiola, jan duen ura ořtu edo gaitzatu.

Ustez ala den, nai ginuke lenbailen gora edo bera eman dakion: orgatik, sendakinari deitu edo otsegin bařo len, gure burutik asten oi gara, purga edo alako bat ematen.

Bařo, kontu, begira: sabeleko gaitz andienak, ilgarienak, ořaze anditan dute bere asiera: eta oien gora-bera guzia ordu gutxitan dutela.

Este bat zulatzen denean, urdařa lertzen denean; *apendice* delako este txikia suartzen edo zilatzen denean, alakoetan gaitzaren lenengo ezagungarria sabeleko miřa da.

Orgatik, alako ořazetan, zuen baitarik ezer ez egin eta sendakinari lenbailen deitu. Beste gaitzik ere bada sabeleko miřarekin asiera dutenak: *beazun-ariak* batzutan ematen dutena: *giltzuřin* ondoko *gernubidetik* eldu diren legar-trabak eta olako.

Nola nai den dela: sabeleko miřez eritzen dena eri-andi (grave) diteke batzutan, eta ez bestetan. Ori berexteko ezda sendakinentzat ere beti gauza eřaza: bařo, beti sendakinak egin bear duen lana.

Jakina: jan-edanak kalte egiten digutenean eta alakoetan, miřak eztiitzeko osagai zerbeit artu eta ondofik purga bat lukete oberenik.

Bařo, alakoetan ori ez egitea, ez lukete kalte; on baizik ez, ikusiarte uzteak.

Aldiz, besteetan, onela jokatzeak kalte andiak lituzte: sabeleko miř-andi ote den begira arduraz eta gaxoari purgarik artuazi gabe, sendakina deitu.

Gaitz aietatik, laster eri-anditzen gaituztenak; *este* koropilo bat; *este* biuřiko bat *etendun*-etan maiz aski gertatzen oi dena; *este* edo *urdařa* zulatzeak, *apendicitis* delakoarenak.

Gaitz oien osagai bidezkoa edo bakafa, ebakidura edo *operazionea* denez geroř; lenbailen, ordurik galdu gabe bear da berexi; eztabaia zuritu.


Erabaki ontara jo bařo leen, arta (ardura) andiarekin gaxo dagona ikartu eta miatu: alako gaitzetan leen orduetan egiten diren ebakidurak ondorio onak duzketelako, lenbailen ebaki.

Ortarako bidezkoena sendakina etofi bitartean litzeke, sabeleko miř guziak miř-andi gisaz artu. Befeun aldiz obe baita, gaitz txikiena minandi ustea, ezen ez miř-andia txikitat idukitzea.

On baizik ez dago, utsegite lenean eta kalte andiak baizik ez, utsegite bigafenean.

Ori ala denez geroř, lenbailen sendakinari otsegin, eta Jainkoa baitan, agur irakurle maite ori.

Lareko



Egazkia (aeroplano) mixiotan

Orain iru edo lau ilabete, monja batzuek Txile'ko kai edo portu batera eldu ziran, itxasoz bide luzea egin da gero. Emendik Bolivia'ko Santa Cruz urira joan nai zuten, trenez bost eguneko bidea egiñaz; bigarren bide onek, luzea izan da ere, etxutuan ikaratuko monja oyek; miña ematen ziena zan Txile'n egon beafa, Bolivia'rako trenik etzalako egun ayetan.

Zer egin jakin ezta, gobernadorearengana jo zuten, Bolivia'ra nola joan litezken ikusteko. Onek erantzun zien, berak nai ezkeru, ordu batzuetan Santa Cruz'en egon litezkela, egazkian (aeroplano) joanaz.

Gobernadoreari eskefak eman da gero, ufengo egunean egazki batek ordu gutxitan Santa Cruz'era eraman zituen.

Ori bai asmo edefa

Bruselas'ko izpafingi edo periodiku katoliko batek, asmo bat artu du ta bai edefa: astero mixiotako gaiaz beteko du bere ofialde bat.

«XX Siècle» da izpafingi onen izena. Onen antzera izpafingi katoliko guziak beaf dan tokia emango balieke, jo zein laguntza mixiolarientzat! Ori izango litzake Aita Santuaren gogoa betelzea ta gañera gure etsaiak erakusten digutena ikastea, ez diteke ba ukatu izpafingi ta liburuakin etsaiak egiten duten lan ikaragafia. Askok dira oraindik mixiolarien lan neketsua ezagutzen ez dutenak ta ezagutu ezkeru, geyago lagunduko liekenak Jaungoiko ta Elizaren alde zaramazkiten lanetan.

Mixiolari zorionenetakoa

«Nere kristauak, dio Doyle Aitak, munduko onenak dira. Pozik nago, Jaungoikoak zenbat lagundu didan ikusita. Bai bizia ta afitzekoa nere kristauen siñismena. Batzuek 136 kilometroko bidea dute elizara etortzeko; oyek bost astero etortzen zaizkit ta etofi ta joateko amaf egun beaf dituzte. Astero etortzen dira 24 kilometroko bidea dutenak ta bi astero 30 kilometro dituztenak.

Onera etofi nitzanean, orain bost urte, emen inguru guzian etziran amabi kristau izango ta orain, azkenengo sei ilabetetan 14.000 Jaunaftze izan dira.

Oso zorionekoa naiz ta Jaunari eskef edo grazi asko zor dizkiot, nere neke ta lanak ofela bedeinkatzen ditulako.»

Emen besterik ez dago pakea.

Noruega'n gizon jakintsu bat, Lars Eskeland, egiazko Elizara etofi da ta ara zer dion: «Ez nindeken protestanteakin geyago egon. Jesukristori jainkotasuna ukatzea eraman ezin nuelako. Pakea nai nuen ta pakea egiazko Elizan besterik ez dago, 1.900 urte ditun Eliza ontan bakaf bakarik. Emen ez dago bufukarik. Aitoŕpen edo konfesioko sakramentuak ere indaf asko egin dit protestanteak uzteko; gogof zitzaidan sakramentu ori gabe bizi ta iltzea.»